

Sluicing-a euskaraz: zer ezkututzen duen ez didanean ikusten uzten

Irene Macazaga Núñez

UPV/EHU

Hizkuntzalari Euskaldunen VII. Topaketa

Iruñea

2024ko ekainaren 27a

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1. Sarrera

- *Sluicing-a* *nz*-sintagma izan ezik **galde-perpaus** osoa isiltzen duen **elipsi** fenomeno da.
- Ingelesa (Ross, 1969; Merchant, 2001), japoniera (Takahashi, 1994), gaztelera (Brucart, 1999), errumaniera (Hoyt & Teodorescu, 2003), nederlandera (van Craenenbroeck, 2010), turkiera (Ince, 2012), hungariera (Lipták, 2015), **euskara ...**

- (1) Ascenek norbait maite du, baina ez dakit nor. [Mendeko galde-perpaua]
- (2) Jesusek lagun bat gonbidatu du. Ezetz asmatu zein! [Mendeko galde-perpaua]
- (3) A: Norbait iparraldera joan da.
B: Nor? [Galde-perpaus nagusia]
- (4) A: Ibonek Inge ezagutu du.
B: NOR? [Oihartzun galdera]

- Sluicing-ak **hiru galdera teoriko** sortzen ditu:

- **Egitura**

Ahoskatzen ez dugun horrek ba al du egitura sintaktikorik?

- **Zilegitzea**

Zerk egiten du zilegi elipsi mota hau?

- **Identitatea**

Nolakoa da aurrekariaren eta ahoskatzen ez dugunaren arteko harremana?

- Sluicing-ak **hiru galdera teoriko** sortzen ditu:

- **Egitura**

Ahoskatzen ez dugun horrek ba al du egitura sintaktikorik?



Zer ezkutzatzen du euskal sluicing-ak ez digunear entzuten uzten?

- **Zilegitzea**

Zerk egiten du zilegi elipsi mota hau?

- **Identitatea**

Nolakoa da aurrekariaren eta ahoskatzen ez dugunaren arteko harremana?

2. Sluicing-a euskaraz

- Fonologikoki isildua badago ere, sluicing esaldietan **galde-perpau** osoaren **egitura** dugu sintaxian (Ross, 1969; Lasnik, 2001; Merchant, 2001; van Craenenbroeck, 2010; Vicente, 2017).
- Ahoskatzen dugun baino **osagai gehiago** behar da harreman sintaktiko hauek azaltzeko:
 - Nz-sintagmaren kasu-markaketa
 - Uztarduraren Teoriaren hatsarreak
 - Adposizioen banaketa

(5) Ibonek norbaiti deitu dio, baina ez dakit nori [~~deitu dio~~ Ibonek].

- Nz-mugimendua eta gainontzeko egituraren **ezabaketa** defendatzen dut:

(6) Ibonek norbaiti deitu dio, baina ez dakit [nori_i [~~deitu dio~~]_j n [~~Ibonek nori~~_i [~~deitu dio~~]_j]].



2.1. Nz-sintagmaren kasu-markaketa

- Nahitaez, *nz*-sintagma eta perpaus aurrekariko korrelatua **kasu berarekin markatzen** da sluicing-ean euskaraz:

(7) A: **Norbaitek** Aitorri Gabriela aurkeztu dio.

B: **Nork** / ***nori** / ***nor**?

[Perpaus nagusia, ERG]

(8) a. **Norbaitek** Aitorri Gabriela aurkeztu dio, baina ez dakit {**nork** / ***nori** / ***nor**}.

[Mendeko perpausa, ERG]

b. Constanek **norbaiti** Gabriela aurkeztu dio, baina ez dakit {***nork** / **nori** / ***nor**}.

[Mendeko perpausa, DAT]

c. Constanek Aitorri **norbait** aurkeztu dio, baina ez dakit {***nork** / ***nori** / **nor**}.

[Mendeko perpausa, ABS]

- Kasu-markaketaren patroia bera **morfologikoki konplexuak** diren *nz*-sintagmetan:

(9) Constanek **norbaiten lagunari** Gabriela aurkeztu dio, baina ez dakit
 { ***noren lagunak** / **noren lagunari** / ***noren laguna** }.

[Mendeko perpausa, DAT]

- Korrelatuak eta *nz*-sintagmak **kasu bera** izatea ezinbesteko baldintza da euskaraz.
- **Ahoskatu gabeko predikatu bat** egon behar da elipsi-eremuaren barnean kasu-markaketa emateko.
- Eta beraz, predikatu hau hartuko duen **egitura sintaktikoa** dago elipsian:

(10) **Norbaitek** Aitorri Gabriela aurkeztu dio,
 baina ez dakit { **nork** / ***nori** / ***nor** }_k [~~aurkeztu dion t_k Aitorri Gabriela~~].

2.2. Uztardura

- **Anaforak**

(11) **Nahiak**_i bere lagun^{en} argazki batzuk inprimatu ditu, baina ez dakit [[**bere buruaren**]_i zein argazki].

- Anafora uztartzeko, hura o-komandatzen duen DS bat egon behar da derrigor eremu hurbilean (**A hatsarrea**), alegia, mendeko perpausean (Chomsky, 1981).
- **DS** hori **Nahia** da, eta *nz*-sintagma mugitu aurretik uztartzen du **anaforaren kopia**.
- Hortaz, osagai horiek hartuko dituen **egitura** behar da elipsi-eremuan:

(12) **Nahiak**_i bere lagun^{en} argazki batzuk inprimatu ditu,
baina ez dakit [[**bere buruaren**]_i zein argazki]_k [~~inprimatu dituen~~ **Nahiak**_{i-t_k}].

- **Erreferentziadun adierazpideak**

(13) ***Hark**_i bere nebaren abesti hauek entzun ditu, baina ez dakit [**Aneren**_i zein abesti].

- Erreferentziadun adierazpideek aske (*i.e.* uztartu gabe) egon behar dute (**C hatsarrea**) (Chomsky, 1981).
- (13)-n C hatsarrea urratzen da erreferentzia adierazpidea (**Ane**) uztartuta dagoelako bere eremu hurbilean.
- Adierazpide erreferentzialaren **uztartzailea** sintaktikoki presente egon behar da, eta ondorioz, hori hartuko duen **egitura**:

(14) ***Hark**_i bere nebaren abesti hauek entzun ditu,
baina ez dakit [**Aneren**_i zein abesti]_k [~~entzun dituen~~ **hark**_i ~~t~~_k].

- **Aldagai uztartua duten izenordainak**

(15) [Musikari orok]_i gustuko du bere_i instrumentua, baina ez dakit [bere_i zein abesti].

- (15)-eko bigarren izenordainak irakurketa uztartua izateko, **DS zenbatzaile** batek (e.g. *oro*, *bakoitz*) uztartzea beharrezkoa da.
- Horrenbestez, **kuantifikatutako DS** horrek izenordainaren **mugimendu-aurreko kopia** uztartzeko, osagai hauek hartuko dituen **egitura** dago elipsi-eremuan:

(16) [Musikari orok]_i gustuko du bere_i instrumentua,
baina ez dakit [bere_i zein abesti]_k [~~gustuko duen~~ [musikari orok]_i ~~t_k~~].

2.3. Adposizioen banaketa

- Euskarak bigarren *Forma-identitate Orokorpena* (Merchant, 2001) betetzen du:

(17) *Forma-identitate Orokorpena II: Preposizioa atzean uztea* (Merchant, 2001, 92 or.)

L hizkuntza batek sluicing-ean preposizioa atzean utzi ahalko du, baldin eta soilik baldin *L* hizkuntza horrek ohiko *nz*-mugimenduan preposizioa atzean uztea baimentzen badu.

(18) a. *Nor hitz egin zuen **-ekin**?

(*cf.* Who did she speak **with**?)

b. Anak norbait**ekin** hitz egin zuen, baina ez dakit nor-*(**ekin**).

(*cf.* Ana spoke **with** someone, but I don't know (**with**) who.)

(Merchant, 2001, 100 or., (45) adib. (moldatua))

(19) a. Anak norbait**ekin** hitz egin zuen, baina ez dakit [nor-*(**ekin**)]_k [~~hitz egin zuen Anak~~ *t_k*].

b. Ana spoke **with** someone, but I don't know [who]_k [~~she spoke **with**~~ *t_k*].

3. Ondorioak

- **Sluicing-a euskaraz**
 - Ez badigu entzuten uzten ere, galde-perpaus baten **egitura sintaktiko osoa** du.
 - Harreman sintaktiko batzuk ulertu ahal izateko, ahoskatzen dugun baino **osagai gehiago** behar dugu:
 - Nz-sintagmaren kasu-markaketa
 - Uztarduraren Teoriaren hatsarreak
 - Adposizioen banaketa
 - **Nz-sintagmaren mugimendua** eta gainontzeko egituraren **ezabaketaren** ondorioa da:

(20) Ibonek norbaiti deitu dio, baina ez dakit [nori_i [deitu dio_j]_{~~n~~} [Ibonek nor_i deitu dio_j]].



Eskerrik asko!



Irene Macazaga Núñez

UPV/EHU

irene.macazaga@ehu.eus